

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2023ko otsailaren 18tik 24rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2023/02/22

- **LANEKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK.** 2023ko urtarrilaren 20ko Ebazpena, Lan Zuzendaritza Nagusiarena, azukre-industriaren hitzarmen kolektiboko 2023. urteko lantsien taulak berrikusteko erabakia erregistratu eta argitaratzen duena. **4792 xedapena- 5 or.**
- **LANEKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK.** 2023ko otsailaren 11ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, kreditu-sozietate kooperatiboen XXII. Hitzarmen kolektiboaren akordio partziala erregistratzen eta argitaratzen duena. **4796 xedapena- 5 or.**

2023/02/24

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. LANEKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK.** 2023ko otsailaren 14ko Ebazpena, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, eraikuntza-sektoreko Hitzarmen Kolektibo orokorraren esparruan enplegatuen okupazio-tasari buruzko Akta erregistratzen eta argitaratzen duena. **4995 xedapena- 4 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2023/02/20

- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** Gipuzkoako Arrain eta Itsaski Fresko eta Izoztuen Handizkarien enpresaren hitzarmen kolektikoa. **0867 xedapena- 12 or.**

2023/02/23

- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** Akatsen zuzenketa: Gipuzkoako Gasolindegien hitzarmen kolektiboaren 2023ko soldataren berrikuspena. **1009 xedapena- 1 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2023/02/18

- **OSASUN MINISTERIOA. Substantzia eta produktu psikotropikoak.** SND/136/2023 Agindua, otsailaren 17koa, substantzia eta prestakin medizinal psikotropikoak arautzen dituen urriaren 6ko 2829/1977 Errege Dekretuaren 1. eranskinean substantzia berriak jasotzen dituen, baita haien fabrikazioaren, banaketaren, preskripzioaren eta ematearen fiskalizazioa eta ikuskapena ere. **4325 xedapena- 3 or.**

2023/02/21

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Garapen jasangarria eta elkartasun globala.** 1/2023 Legea, otsailaren 20koa, Garapen jasangarrirako eta elkartasun globalerako lankidetzari buruzkoa. **4512 xedapena- 43 or.**
- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Ustelkeriaren kontra egitea.** 2/2023 Legea, otsailaren 20koa, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena. **4513 xedapena- 50 or.**

2023/02/22

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Landare-osasuna.** 115/2023 Errege Dekretua, otsailaren 21ekoa, Trioza erytrae kontrolatzeko eta erauzteko Estatuko programa eta Diaphorina citri eta Candidatus Liberibacter spp prebenitzeko Estatuko programa ezartzen dituen. **4650 xedapena- 13 or.**
- **PRESIDENTETZAKO, GORTEEKIKO HARREMANETAKO ETA MEMORIA DEMOKRATIKOKO MINISTERIOA. Antolaketa.** 118/2023 Errege Dekretua, otsailaren 21ekoa, Osasun Kudeaketaren Espainiako Institutuaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituen. **4653 xedapena- 11 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2023/02/24

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** 20/2023 DEKRETUA, otsailaren 14koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lan-hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistroari eta gordailuari buruzko Dekretua aldatzen duena. **1025E xedapena- 5 or.**
- **OSASUN SAILA.** AGINDUA, 2023ko otsailaren 17koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita eguneko eta gaueko guardietan farmazialariak lokalizatzeko prozedura. **1026E xedapena- 3 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2023/02/20

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 90/2023 Foru Agindua, otsailaren 10ekoa. Onestea diru sarrera eta ondare gutxiko pertsona fisikoentzako 20/2022 Errege Lege-Dekretuan aurreikusitako laguntza eskatzeko prozedura (20/2022 Errege Lege Dekretua, abenduaren 27koa, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko neurriena eta La Palmako uhartea berreraikitzen eta beste kalteberatasun egoera batzuei erantzuten laguntzekoa). **448E xedapena- 2 or.**

2023/02/22

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2023 Zerga premiazko araugintzako Dekretua, otsailaren 14koa. Onespena ematea Arabako zerga araudira egokitzeari balio erantsiaren gaineko zertan, zerga berezietan, energia elektrikoaren ekoizpen balioaren gaineko zergan eta berandutze interesean egin diren hainbat aldaketa. **478E xedapena- 15 or.**

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2023/02/23

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Bizkaiko Foru Aldundiaren 18/2023 FORU DEKRETUA, otsailaren 14koa. Haren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra aldatzen da; Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duena; Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsia. **I-236 xedapena- 5 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2023/02/20

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 66/2023 Foru Agindua, otsailaren 8koa, zeinaren bidez onesten baitira ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko. **0939 xedapena- 1076 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 83/2023 Foru Agindua, otsailaren 15koa, zeinaren bidez arautzen baita zer prozedura aplikatuko den Ukrainako Gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzutea eta La Palma uhartea berreraikitzen eta beste batzuk laguntzea helburu duten neurriei buruzko abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege-Dekretuan aurreikusitako laguntza eskatzeko. **1169 xedapena- 3 or.**

2023/02/22

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 65/2023 Foru Agindua, otsailaren 8koa, Mugaldeko Langileen Erregistroan alta, aldaketa eta baja eskatzeko 002 eredua onetsi eta hura aurkezteko lekua eta epea ezartzen dituen. **0940 xedapena- 4 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2023/02/20

- **ERREGELAMENDUAK.** Europako Batzordearen 2023/361 Erregelamendu Delegatua (EB), 2022ko azaroaren 28koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/429 Erregelamendua osatzen duena, zerrendako gaixotasun jakin batzuk prebenitu eta

kontrolatzeko albaitaritzako sendagai batzuk erabiltzeko arauari dagokienez. **L52/1 xedapena- 42 or.**

2023/02/23

- **ERREGELAMENDUAK.** Europako Batzordearen 2023/403 Betearazpen Erregelamendua (EB), 2023ko otsailaren 8koa, 2015/2447 Betearazpen Erregelamendua (EB) aldatzen duena, sarrera-deklarazio laburtuetarako informazioa hornitzeari eta arriskuen azterketari dagokienez, salgaiak sartzeari dagokionez, eta Ukraina zirkulaziorako fidatzailearen konpromisoen herrialde-zerrendan sartzeari dagokionez. **L56/18 xedapena- 2 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - BILBAO